Anouk Ricard

PATTI ETA INURRIAK



astiberri EUSKARAZ

Beraz, zuek inurriak zarete, ezta?
Bai, eta zu?
Ni pertsona bat naiz.
Pertsona bat? Kar-kar! Eta zergatik ez pottoka bat!
Zer uste du, ergelak garela, ala?
Zinez diotsuet! Webgune horregatik izan da!
Guebune bat? Zer da baina?
Horrek ez daki ezta zer dioen!
Utzidazue kontatzen...
Oso egun txarra pasatu dut.
Eskolan hasi da kontua.

Eta etxean jarraitu du...
NIRE GELA
DANBA!
NIRE GELA
MAFALDA
bilatu: nagusiez leporaino
NAGUSIEN MUNDUAZ LEPORAINO?
SAKATU HEMEN
MAFALDA
bilatu: nagusiez leporaino
NAGUSIEN MUNDUAZ LEPORAINO?
SAKATU HEMEN
PUF!
Non nago?

Zer ote da gai hau?
Egurra dirudi, baina hiper gertutik.
KAX
KAX
Baina...
Nire aulkia da eta!!!
Txiki-txikia egin naiz?!! Ez da posible!
Berriro egingo didate errieta!
AITA! AMA!
Izugarri altua da!
AAA!
KRIX!
DANBA!
Eta gero, zulo beltza.
Puajjj Bai kontakizun aspergarria!
Ok! Eta hor agertu gara gu.


Zer da gauza hori? Bigun-biguna da, bareen modukoa.
Ez da intsektu bat.
TOK TOK
Eramango dugu?
Ikusiko dugu zer egin berarekin.
Astuna da gero! Urez beteta egongo da?
Horrela heldu zara hona.
Oso ondo dago hori, baina bueltan eraman beharko nauzue.
Bai zera!
Mmm, izan daiteke, bai. Zer emango diguzu trukean?
Kontxo! La Fontaineren alegian bezala, zuek ez zaudete oso prest laguntzeko, ez?
Ez dago ezer musu truk. Gurean, hala da.
Ados, ondo da, berriz handi egiten banaiz, hazi pila bat emango dizuet.
Bai, baina handia bada, zapaldu ere egin gaitzake.
Horixe ba! Zer berme daukagu?

Zera... gurasoen izenean zin egiten dut.
Zer? Hori al da bermea?
Kar-kar! Ezin dut sinetsi!


Tira! Nazkatu egin nauzue, bakar-bakarrik itzul naiteke.



Egon! Izugarri arriskutsua da! Badaude sugeak eta armiarmak, baina guk bidea ezagutzen dugu!


Lagunduko dizugu!

Aizue, zuek biok, jakin daiteke zertan ari zareten? Beste guztiak han dira.
Ee, zera, Maisu Nagusi...
Berak behartu nauelako etorri naiz!

Hara, uste dut utzi beharko zaitugula, zera... zu.
Patti dut izena.
Zer dela eta irten zarete katetik?
Lagundu nahi genion, Maisu Nagusi.
Tontakeria galanta! Esana dizuet atzerritarrei ez hitz egiteko.
Segi lanera!
Utzi hori alde batera, eta jarri arreta nire proiektuan.
Bai, Maisu Nagusi.
Baina nola itzuliko naiz etxera?!
Zeu moldatu!

Ondo da, ez dut inola ere etsi behar!
PAF
Ondo esanda!
AAI!!
Itxura nahasgarria dut, badakit, intsektu makil bat naiz.
A, bai, eskolan ikasi nuen.
Gizakiek eskolak dituzte? Ez du hala ematen... Bo, utz dezagun. Zure istorioa entzun dut, eta lagun zaitzaket!
Primeran! Nondik joan behar da?
Ene! Lasai zaitez, ilusionista naiz ni, ez igarlea!
Utzi pentsatzen...

Aizu! Denboratxo bat eman duzu pentsatzen.
E? Zer? Barkatu, lo nengoen...
Badakit! Lore baten gainera igo gaitezke zure etxea aurkitzeko!
Tira, zergatik ez!
Hara! Bazegoen zerbait barruan!
?
TOK TOK
Zer? Kaka egiten hitz egin bitartean?
Bai ba, debekatuta al dago?
Bo, zaldiek ere hala egiten dute.
Lagundu igotzen, zera...
...Nola duzu zuk izena?
Fabrice.